**gasteizko jaiak**

txosnak. 25 urte
egitaraua barruan

# GEU

2005eko
abuztua - iraila

152/3

**azkena rock**

irailak 2 eta 3
mendizabalan

**uda**

araban zeharreko
jaiak



# udako abezea

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Errioxa arabarrak jai zoriontsuak opa dizkizue













## Eskuernaga - Villabuena (ARABA)

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# SUMARIOA152-153

## udako abezea




**zeregin** 4
abuztu/iraileko agenda

a 7
b 8
d 9
e 10
f 11
g 13
h 14
i 15
j 16
k 17
l 18
m 19
n 20
ñ 21
o 22
p 23
r 24
s 25
t 26
u 27
x 28
z 29

**batbitan** 30
gasteizko txosnak. 25 urte > iñaki uribarri

**batbitan** 32
arabako jaiak

**batbitan** 34
azkena rock jaialdia-2005

**bidaia / errezeta** 36
jon arretxe / marrubi gazpatxoa

**arababixotzian / historiazutabea** 37
alfredo ibarra / erlantz urtasun

**umorea** 38
iñigo sarasola

Laguntzaileak:
Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila
Arabako Foru Aldundia
Fundazioa Grupo Eroski
Caja Laboral Euskadiko Kutxa

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**1.**
JAIAK >
bastida / baigorri / lizarra

**2.**
JAIAK
> kanbo

**3.**
KONTZERTUA
> jamiroquai.
**gasteiz (mendizorrotza futbol zelaian)**
JAIAK
> bera

**4.**
GASTEIZKO JAIEN HASIERA.
ikus. egitaraua

**5.**
GASTEIZKO JAIAK.
Ikus. egitaraua /
JAIAK
> kexaa

**6.**
GASTEIZKO JAIAK.
ikus. egitaraua
JAIAK
> ibarra-aramaio / getaria

**7.**
GASTEIZKO JAIAK.
ikus. egitaraua

**8.**
GASTEIZKO JAIAK.
ikus. egitaraua

**9.**
GASTEIZKO JAIEN AMAIERA.
ikus. egitaraua
KONTZERTUA
> u2.
**donostia (anoeta estadioa)**

**10.**
JAIAK >
getxoko kai zaharra
KONTZERTUA >
fundación tony manero

**11.**
JAIAK
> amurrio / leitza






**14.**
ANTZERKIA
>'ezetz lepoa jarri!' (kanpingags s.l). aktoreak: jose ramon soroiz, hasier ormaza, kiko jauregi, ainhoa aierbe, kontxu odriozola eta joseba apaolaza. **amurrioko antzokian. 20:00etan**
JAIAK
> donibane garazi
KONTZERTUA
> gozategi.
**zeanuri**

**15.**
JAIAK
> bilbo eta donostiako aste nagusiaren hasiera / laudio, araia, aramaio, urizaharra, eltziego, gebara, gopegi / zarautz / ainhoa
KONTZERTUA
> karidadeko benta.
**zumaia**

**16.**
JAIAK
> leza, bilar, iruña oka / deba

**17.**
JAIAK
> gernika
KONTZERTUA
> mal de ojo.
**gernika**



**21.**
KONTZERTUA
> carlinhos brown.
**bilbo**



**23.**
KONTZERTUA
> zea mays.
**bilbo**

**24.**
JAIAK
> okondo, durana, lapuebla labarka, urrunaga / amezketa, elgoibar
KONTZERTUA
> teresa zabalza set.
**bilbo. guggenheim**

**25.**
KONTZERTUA
> ken zazpi.
**laudio**



**28.**
JAIAK
> erribera beitia, durana, goardia / bakio



**30.**
JAIAK
> zoio

**31.**
JUAN ZELAIA V. SAIAKERA SARIA.
epearen amaiera.
**informazio gehiago: pamiela etxea, 948326535 / pamiela@pamiela.org**

GEU laguntzailea:

ekitaldien berri emateko > geugaste@grn.es geu@geugasteiz.com



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



**2.**

AZKENA ROCK JAIALDIA
**> gasteiz. irailak 2-3**
JAIAK
> artziniega, dulantzi / lekeitio / berriozar



**4.**

JAIAK
> donibane lohitzune



**7.**

BECERRO DE BENGOA XVII. SAIAKERA LEHIAKETA
IGNACIO ALDEKOA SARIA XXXIV. IPUIN LEHIAKETA
ERNESTINA DE CHAMPOURCIN XVI. POESIA LEHIAKETA.
**epearen amaiera.**
**arabako foru aldundia**

**8.**

JAIAK
> eltziego, beranturi / bermeo, elorrio / hondarribia
KONTZERTUA
> gari.
**lekeitio**

**9.**

KULTURA DENON ESKURA.
gasteizko kultur ikastaroak 05/06.
**epearen amaiera. www.vitoria-gasteiz.org / 010. gasteizko udala**
JAIAK
> legutio, dulantzi, bernedo, lantziego, samaniego, gaubea, estibaliz, kripan

**9.**

EUSKAL JAIAK
> zarautz
KONTZERTUA
> niko etxart + kerobia.
**dulantzi**

**10.**

KONTZERTUA
> bebe.
**gasteiz**
EUSKARA FESTA
>euskara añana mingainean
**gesaltzan**



**13.**

JAIAK
> altsasu, otsagi / sara





**16.**

JAIAK
> lantaron



**21.**

JAIAK
> atharratze-tardets



**23.**

JOSE ANTONIO LOIDI IKERKETA BEKA 2005.
**epearen amaiera.**
**www.irun.org /**
**euskara@irun.org / 943649250**
**(irungo udala).**

**24.**

KONTZERTUA
> mikel laboa.
**baluarte**



**26.**

JAIAK
> erriberri-olite

**29.**

JAIAK
> murgia, elosu, erribera goitia



**31.**

JAIAK
> irunberri-lunbier

Obra Social
Caja Vital Vital Kutxa
Gizarte-Ekintza

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

ZURE HARATEGIAK

*Jose Luis*
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA
Andaluzia kalea 13
☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ



EUSKAL OKELA

XABIER AIZPEOLEA HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 26 78 97
**gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak**

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!
Jatetxea - Taberna



"EL CLARETE"
Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefonoa: 945 26 38 74

EVSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia
Gasteizko haragitegirik zaharrena
Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

*Confecciones*
*Pinedo*
JANTZIAK
San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

ERROTA
HORTZ KLINIKA
Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxa. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

*Bacalao Giraldo*



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

*Bacalao Giraldo*
ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ




*OSTIRALETIK IGANDERA IREKITA.*
ASTEAN ZEHAR ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK
Arraga auzoa.
Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

MARRAZKIAK · KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
zurbeltz
Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Euskadik behar zaitu
EAJ PNV

IRVSTA TABERNA
poteo eta pintxoak
Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

Udaberria
euskaltegia
- Euskaltegi Homologatua
  - Helduentzat
  - Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

*ARTEPAN*
*Artisau Okindegia eta Goxotegia*
Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Bata bestearen ondoan jarri zaituztet eta mendilerroa osatu duzue. Zu eta zure A' (A prima, lehengusina??!... matematika garaiak urrun geratzen zaizkit. Ez zitzaizkidan sekulan lagungarriak suertatu eta, arrazionala ez nintzela azkar antzeman nuen). Hiruki zuzenak, zorrotzak. Tontorrak. Aldapa gora, arnasestuka. Atsedena noiz helduko zain.

Borobila ere izan zaitezke, izan bazara. Biguna, moldaerraza, irribarretsu, korapilatsua. Agian... (patuaren esku dagoen hitza). Abezearen lehendabiziko hizkia, ausartena, onerako nahiz txarrerako. Arauak. Aspaldian zure babesean nabil murgilduta. Zuk, nik bezala, garaiei aurre eginaren ondorioz zure izaera egokitzen jakin duzu. Txikiskula, handiskula (*) izatetik bildua izatera. Barne eta kanpo munduko oskolaz jantzia.

Kimutik tiraka eta biluztu zaitut, laua, gardena, ulerterraza, irekia. Isila, behatzailea eta pazientziaduna ordea, zure buruarekin ez den beste edonorekin mintzatzen zarenean, zure barrenei begiratzen eta borobiltzen zarenean. Bildua, aurpegi biko bihotza. Euria eta eguzkia. Biak beharrezkoak.

Geruzan eskusatu arren, ekaitzak itsaso urdin zeru argian harrapatuko ninduke / gintuzke (zu eta biok) abisurik gabe. Aterkirik eskasian egingo luke, bustitzea ekiditea ez baita posible izango. Barrutik kanpora marraztutako izaki hauskorra.

(*) Kike Amonarriz eta Asisko Urmenetak 'Euskaraz lardaskatzeko manerak' hitzaldian erabilitako hitz-jokoa.

A

aaaa
aaaa



[edurne begiristain]

# barkatu


[edorta sanz]

Akatu egin zaitugu,

baina ez dizugu inolako
azalpenik eman.

Bizitza indarkeriaz ebatsi dizu,

baina inork ez gaitu horregatik
kartzelan sartuko.

Gorputza erditik moztu egin
dizugu tupustean,

baina ez dugu zure
negarrik entzun,

ez zaitugu arranguratzen ikusi,

ez dugu odolik ikusi zure
zainetatik jariatzen...

baina garrasi egin duzu.

Odolostu zara.

Eta, oraindik, minduta duzu arima,
hosto ttipietatik hasita lur azpira
lotutako sustraietara arte duzu
mina.

Gorroto gaituzun ez dakit,

gorrotatzeko ahalmenik
ote duzun ez dakit,

hitz hauek zuregana
ailegatuko diren ez dakit,

hitz hauek zergatik idazten
ditudan ere ez dakit,

baina hitz egin behar nizun,

azken adioa eman,

nire tristezia malkoak zure sustrai
zenduetara ailegatzea nahiko nuke,

ene beso txikiekin zure gorputz
handi eta potoloa xuabe besarkatu,

urteek gogortutako azal mardulari
muxu leuna eman eta...

**barkatu** xuxurlatu.

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

[edorta sanz]

# delirium tremens



Dzanga-Dzanga
ardo, garagardo
Dzanga-Dzanga
garagardo, ardo
danok dena edaten
dena edaten danok
datu nahasiak
da-da-da-da-da-da
danborrak, dardarak
dordoka dantza
denboraren demasa
denaz dzanga-dzanga...

Ibiltariaren oinetan
adurra dariola
lurrean etzanda
kartera barik.

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

[saioa fdz. de arangiz]



Eguzkia
Erlantz eder ugari,
Eroso
Eztitasunera eroaten gaitu

Eki,
Ekurutasun franko
Ezinbestekoa
Energiaz estaltzen gaitu

Eguzkia
Estimagarria oso
Egonkorra
Eztiro iluntasunaren ezkortasunaz babesten gaitu

[edorta sanz]







Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



[estitxu breñas]

**Fite**. Zeinen fite iragaiten den denbora!

Arin, azkar, ez baitugu astirik... Erlojuaren orratzen lasterketa hastear dago. Denbora & bizitza abiadura. Pausatzeko paradarik ez.

Denbora, altxor preziatua. Askotan alferrik eta zentzugabeko kontu, buruhauste, haserraldi edota eztabaidatetan xahutzen duguna.

Fite. Iratzargailuak, ti-ti, ti-ti, ti-ti... Esna zaiteeeeeezzzz. Astelehenetik ostiralera bitartera, larunbatetan ere akaS.O.S!
Gorputza ez da gorputza, maindireekin mimetizatu baita, banandu ezinik, mugitu ezinik, baina fite-k hor darrai... Azkar, ez zarela helduko, arin, ez duzula bestela denborarik izango egin beharreko guztia egiteko...

Eta bizitzaz gozatzeko?

Fite, eta oporrak hartzen badituzu noizean behin arnas dezagun?

Denbora bizitza da.
Eta denbora,
bizitza bezala,
bizirik bizi behar da.

...denbora fereka da inoiz zenbatzen ez duenarentzat, dio desio doktoreak.

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Zure denda erotikoa
SEX
PITTILIN GORRI
Sexua euskaraz bizi
GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel:945 15 42 60
DONOSTIA
OIARTZUN

Obren egite eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobila: 639 81 51 30

MIKO
Izozkiak

bar · restaurante · albéniz
Errege atea, 9 · GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85


IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073

XIXILU
JATETXEA
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 · GASTEIZ

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

LIZARRALDE SOINUA
TXALAPARTA, S.L.
945 226 977
GASTEIZ
SOINU PROFESIONALA • MEGAFONIA
EREMU HANDIEN SOINUZTAPENA

BAR KLAKÉ
KUTXA, 2
TFNO. 143883
GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

eguneko menua

DIBUtec
Paper Bereziak
Arte Ederretarako Materiala
Ink jet original eta birziklatuak
Bulego Materiala
Enkuadernazioak
Plastifikazioak
Kopiak
Kamiseten Estanpaketak
Jazkarprint
imprenta / inprimategia
Edozein inprimaketa mota.
• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ • INPRIMATEGIA •

EGUR
Zurezko Teilatuak
Muntaiak Garabiarekin
eta Berrikuntzak
Padurea kalea 12, 16 Pab.
Goiain Poligonoa, Legutiano
01171 Araba
Tel.: 627 417 747
Faxa: 945 465 921
montajesegur@euskalnet.net

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!
bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak
Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

Quetzal
Hegoamerikako jantzirik ederrenak
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko ertzean) Tfnoa: 945 25 03 52

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 · 01001 - GASTEIZ

EA
eusko alkartasuna
www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea
Euskeraz Araban BAI
GA
Gazte Abertzaleak
www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Argazki - Estudioa
Erramun
Heraclio Fournier, 23
Tnoa: 13 71 02
01006
Askatasun kalea, 5
Tnoa: 26 19 91
01004

sarlu
Zure arropa eta oinetakoak
www.sarludenda.com
Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

TABERNA
JANTOKI BEGETARIANOA
SAN FRANTZISKO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL.- 945 27 68 33

TXUKUNA
EUSKAL HERRIKO EHUNAK:
bainu-batak, oihalak,
sukaldeko zapiak,
patchwork ohe-estalkiak...
Nafarroako errege-erreginen kalea, 11

HEGOALDE
Euskaltegia
Matrikula zaitez !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

[josune v. de mendizabal]

*Ezin ahoska zaitzaket.*
*Batzuetan eztarriaren erdian eztula bezain zeken.*
*Bestetan haize korronte xumea bezain isila. Etena.*

Goiztiriak dakarkidan istorioaren gidoiaren mesedera mugituko naizelakoan naiz gaur ere.

Nekez altxatu eta gaurkoan kanpotik ikusiko dut mundua. Ahopeka, pentsakor.

Ahots ilara fina besterik ez baitut.

Lasaitasunean galduta, denborari armistizioa lapurtu diot.

Tunelaren bestaldean zer dagoen jakinminaz burbuilan suspertu naiz eta ziur asko, atera une hartako biharko eguna helduko da.

Ordurako, seguruenik, indarberrituez jantzita bestelako ***story board***-eko manikia izango naiz.

Eztula egingo dut entzun nazaten, garrazperaz sortuko zaitut biharkoan, gaurkoan ez bezala.

Etzidamu aldiz, armairuaren barrenean galduko naiz giza senak idatziko duen kontaketa berri baten paradigmen bila.

[edorta sanz]




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

[edurne begiristain]

# herria



Euskal Herriko azala garbitu nahiko nuke.
Harropuzkeria soberan du.
Berotasuna eta poztasuna faltan.
Harrapatuta dauden energiak askatu nahiko nituzke,
elkarrekin bestelako errealitatea eraiki ahal izateko...
Herdoildutako energiak berritu,
eta
bestelako Euskal Herria eraiki nahiko nuke...
Euskal Hiriaren alternatiba ez baita kaosa...
Euskal Herria ez baitago hilda...
ispiluaren bestaldean dago,
hortxe,
hurbil,
harro,
handi,
has gaitezen,
bada,
gure Euskal Herria sortzen...

[edorta sanz]

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



[edorta sanz]



# ito

Itsasoaren haserrea
Tsunami bilakatu zen
eta Sri Lankaren
oihua apar gorriz ito.
Itsasgorarekin hondamendia iritsi zen,
biziraupenaren samina
itsasbeheran.
Itsasoak emandako bizia,
hondarretako arima bihurturik
Sri Lankaren ikara
Ludi osoan ikusi zen.
Ikus-entzunean
Naturaren indarkeriari ihesi
ilunbearen etorrian.

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

[saioa fdz de arangiz]



[edorta·sanz

Jendea, ustez, munduaren jaun ta jabe.
Jarrera berekoia adierazten du askotan.
Jatorki ez du jokatzen naturarekiko.
Jasangaitza den berezko joera nabaritzen da bere jokaeran.
Joritsua da harrokeria ere batzuetan.
Jasankor agertzen da mundua aldiz,
judizioaren eguna heldu bitartean.


Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

[estitxu breñas

# euliak & inperialistak > k.k

**K**utx-kutx, txerriei deitzeko
**K**urrin-kurrin, txerriek diotena
**K**ar-kar, ja-ja, je-je. ji-ji
Sau-sau, zaun-zaun, ttau-ttau, jau-jau, txakurrek...
Zisti zasta, eltxoak ziztaka
**K**ir-kir, kilkerrak
Dsist eta dsaust, kaioak, uretan sartzean arrain bila...
...frixt, fir-fir...
...EULIA**K.K**!

Beti inguruan, zirikatzen, norberaren intimitatea urratzen, norberaren edaria eta janaria zurrupatzen, loa lapurtzen, lasaitasuna osten, gorputz atalak, norbera aztoratzen...

Toki guztietan daude, aitzitik, ez dira inongoak. Dena nahi dute eta ez dute ezer ematen... Zurrupatzen, xurgatzen, zelatatzen, guzia kakazten aritu ohi dira une oro...

Inperialisten antzera, baina alde handiaz: euliek ez dute erailtzen.



[edorta sanz]

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

[josune v. de mendizabal]

# Lats eta loria.
# Ama Naturaren aliterazio fenomenoak



[edorta sanz]



Soinekoa eta zapatak kolore berberaz konbinatu ditu
gaurko ilunabarrak.
Itsasoa eta zerua.

Hegaztiek eta arrainek bat egin dute zeruertzean.

Irudi beltzak txalupan urrunera doaz
olatuen mugimendu ezaren baretasunak eramanda.

Itzaltzen doa denbora biharko egunsentian berriz ere sortzeko.

Liluraz geratu naiz gauaren ferekan. Ilunpetan laket.


Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

[edurne begiristain]

# maitasuna

...eta **maitasunak** ez du zentzurik nori eman ez duzunean...

[edorta sanz]







Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

[maite lekue]

# not time for love

Not time for love
Not love
Not time
Not love for time

Nirea da bizia
Ni ala zu
Ni



[edorta sanz]





Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

[saioa fdz de arangiz]

# Ñ

Koloreak. Ñabardura desberdinek, aniztasunari ñika egiten diote. Iritziak, pentsamenduak, nahiak aske utzi behar dira, koloreak izango balira bezala. Bakoitzak bere argitasun propioaz ñir-ñir egin behar du. Gizarteak ñabarra behar du izan. Mundu inozo honetan, osterantzean, koloreak ñukutu egingo baitira. Ñabardura ñimiñoak, beraz, bizitzaren koloreen margolari dira.



[edorta sanz]

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

[estitxu breñas]



Ortozik nago. Gogoa nuen jada. Udarak arropa eta zapaten zamaz liberatzea dakar. Oinek ere euren oporraldia behar dute. Estresak jota egongo dira dagoeneko: neguko hozgiroa pairatu dute bota hertsi eta galtzerdi lodi horien barruan; lantokietako berogailuen bero itzela jasan; zutik pasatako ordu horiek guztiak; egunez eguneko joan-etorriak; luzatutako gau haiek; mendian ibilitako bide traketsak; takoiak eramandako uneak; kirol saioak...

Oinek ere harearen ferekak sentitzea dute gogoko, uraren besarkadak jasotzea, belarrak eurak orraztea, haizearen xuxurlak entzutea,...

...biluztasunaren biluztasunaz jabetzekO.

[edorta sanz]



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

[josune v. de mendizabal]

# P



[edorta sanz]

# (Sinuaren gakoa den bat)

Pata: hanka, zango. / Ahate-emea (zenbait hizkuntzatan behintzat hala da).

Paté: antzara edota ahatearen gibela.

Pati: zuretzat gazteleraz. / Animalia txiki batentzako goitizen maitekorra.
Adb) *"Ai politta, etorri hona... mmm, zenbat maite zaitudan"* (azkar aspertuko garen gutizia horietako bat, alegia. Ondorioz minduko duguna)

Pato: paita, anatida familiakoen hegazti mota.

Patu. Ezin jakin daitekeena. Mesfidantzaz espero dudana (agian nik bainoago, berak espero nau...). Lumari galkorra. Irribarrea edo negarra sortuko didan jolas arriskutsua. / Ahatea bablez.



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

[edurne begiristain]

# rabat

Hiri bat bestearen barruan,
kulturen uztarketa, neurtua, distantziaduna, badaezpadakoa.
Begirada isilen topaketa ezjakina,
ezin ulertuaren misterioa.
Rabat Gasteizen dago.
Gasteiz ez dago Rabaten.
Elkarri begiratzen diogu kalean, dendan, atarian, tabernan...
Ordea, ez dugu elkar ulertzen.
Distantzia dago zuek eta gure artean.
Disimulatu nahi, bai, baina mundu bat dago gure artean. Zuek eta guk jartzen ditugun muga eta traben
distantzia disimilatua dago Rabat eta Gasteizen artean.
Barrenkalen ikusten zaituztet. Zapan. Hedegilen. Aiztogilen. Izkina horretako tabernan ere.
Elkarrekin gaude. Baina disimulatutako distantziak ez gaitu elkartzen.
Rabat izan zitekeen, baina baita Fez, Tanger, Aljeria, Tunisia, Sahara ere.
Guztiak daude Gasteizen, isilik.

[edorta sanz]





Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

[maite lekue]

# sahara

Sahara, basamortuko sua,
Sahara, 30 urtetako sakabanaketa,
kolonoen sarraskiak
sufrimenduaren sokatik tiraka,
sahararren eskubideak salduz,
okupazioaren sabelaldia sortuz,
arrain bete sare,
fosforoz bete sakela.
Samina,
desertuko biziraupenean,
dispertsioaren sastadetan.
Suaren gordintasuna,
urratutako duintasuna,
sekula galdutako sena
kanpamentuetako sendotasunean.
Sahara, eskubide eske,
soluzio eske.
Sahara, autodeterminazio eskubidea.



[edorta sanz]



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

[saioa fdz. de arangiz]

Ur tanta ttipia eta ttattarra, aldi berean, indartsu eta tinkoa.
Alde biko txanpona. Bizitza eta heriotza.
Beti nahitaezkoa; batzuetan eskatu, besteetan txepeldu.
Tantaz tanta, tipi-tapa.
Munduko toki txundigarrien eskultore,
bizitzaren jatorri,
tamalez, tint txiroen suntsitzaile.



[edorta sanz]



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

[estitxu breñas]

# U

Belar-Ura, ur-etorria, urjauzia, uraldia, urpekaria, ur-lasterra...
Uraza-uhaza, uhaldea, uhaldia, uhandrea, uharra, uhara, uharri, uharka, uholde...
Urdin, urduri, urguilu, urdaiazpiko, gezur, lur, ardura, azkura, beldurra, hezurra, kizkurra, iruzurra, urri, urru, urrun, urtaro, urtarril, urratu, zurrut, txakur, sudur, luxuria, kukurra, jurgi, isurkaria, hurra, haurra, gurea, ezkurra, durango, bilurra, aurrera!...
Makina bat gauzak ura darama. Bizitzak bezala.





[edorta sanz]

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

[edurne begiristain]

# xarma



[edorta sanz]

Kaosaren **xarma**, dio Alaitz eta
Maiderren abesti baten izenburuak...
**Xarma** du, bai, kaosak...
une
eta
leku
egokian
paratutako
gauzen
ilara
ordenatuak
duena
bezalakoxea.

**Xarma** dute zure begi marroiek,
zu espeziala zarelako dute **xarma**,

Alaitz eta Maiderren **kaOsa**, eta
une
eta
leku
egokian
paratutako
gauzen
ilara
ordenatuen
**xarma**.

Baina gure arteko **xarma**...

g... a... l... d...u

e... g... i...n

d...a,

jada arrosa usainik ez dagoelako,
jada lur bustia usaintzen ez dugulako,
jada argi leuna ez dutelako sentitzen gure gorputzek,
jada ezagutzen ez zaitudalako.


Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

[josune v. de mendizabal]

# udako gau baten ametsaz

Ziklikoa, antza. Hogeita zortzi urteko maiztasunezko istorioa.
Borobila. Zirkularra. Jarraikortasun tinko gabekoa ere badena.
Zati igualetan banatzerik ez dago.
Hasiera daukana, bukaera ezin asmatu daitekeena.
Gurpilari bueltaka ari natzaiola,
errealitatea eta ametsa
ezberdintzea ez da erraza.
Hosto baten ferekak,
eguzkiaren beroak,
Zure arnas gertuak
putz nire bihotzean,
korronte haizeak oilo-narru.
Zurrunbiloan igeri egin nahian oraingoan itsasoak irentsi nau.
Halere, ez naiz ito, ez mementoz,
Zidorrik ezin berezi arren.
Alizia, Dorothy edota alegiazko animalia azkarrenaren lekuan egon nahiko nuke, dortoka?, adibidez.
Bata Mirarien lurraldean bizi izan zen, besteak baldosa horiz lagundutako bidea
aurkitu eta azkenak moraleja esku artean.

Zurrungaren soinua sentitu dut nire ondoan,
aldi berean soinuaren zirrira nire eztarrian.........
Lo zerraldo edo biziki/bizian suspertuta???
Zalantza berriro ere.
Itaundu, ihardetsi. Borobila.
Ezer gutxi argitu ez dudan arren, terapia amaituta
gaurkoz.

What a differenZe a day makes, dio abestiak.
Ziklikoa.



[iñigo sarasola]

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## gasteizko txosnak. 25 urte

## IÑAKI URIBARRI, ESK-ko eta txosnen batzordeko kidea

# "Herri mugimendu indartsu baten isla dira txosnak"

[edurne begiristain]

25 urte beteko dituzte aurten Gasteizko txosnek. Mende laurdeneko ibilbidea oparoa izan da, baina baita zailtasun eta trabaz betetakoa ere. Iñaki Uribarrik txosnen hasierak aski ezagutzen ditu, 1981az geroztik lanean ibili baita bertan.

**Mende laurdena igaro da Gasteizko txosnak sortu zirenetik. Nolakoak izan ziren hastapenak?**

Funtsean bi arrazoik bultzatuta sortu ziren. Batetik, Bilbon festa herrikoiak berreskuratzeari ekin zioten 77-78 urteetan, eta oso interesgarria izan zen, jai eredu berria eta alternatiboa sortu zelako. Bilboko eredua Gasteizen zabaltzeko ideiak indarra hartu zuen orduan. Eta bestetik, toki guztietan garrantzi handia izan zuen politikak, alegia, jaiak aprobetxatzea aldarrikapen politikoak egiteko. Horrela, 1981ean txosnak jarri genituen aurrenekoz. Orduz geroztik, aipatutako bi arrazoi horiek mantendu egin dira: jaiak ikuspuntu alternatibo batetik berreskuratzea, eta aldarrikapen politiko-sozialak lekua izatea talde eta elkarteen bitartez.

**Hasierak beti izaten dira zailak. Txosnen kasuan ere hala izan zen?**

Bai. Aurreneko urtean, 1981ean, Floridan egin ziren, nahiko egoera kaxkarretan, egia esan. Soilik bost txosna egon ziren, sei elkartek jarrita: Amnistiaren Aldeko Batzordeak, AEK, Eguzki, LAB eta HB. Urte horretatik aurrera beste kolektibo batzuk jartzen hasi ziren, garaiko zenbait alderdi barne, EMK, LKI..., gizarte erakundeak, sindikatuak... Hazkunde handiena 83-84 urte bitartean izan zen. Baina, 1985erako txosnak nahiko finkatuta zeudela esan daiteke.

**Herritarren erantzuna nolakoa izan zen? Harrera ona izan zuen jendearen artean txosnen guneak?**

Hasiera batean polemika apurra egon zen txosnekin, eta kostatu zen jendearengana heltzea. Hasierako bost txosna horiek pittin bat baztertuta zeuden, *ghetto* antzeko bat bilakatu ziren. Beraz, garai hori nahiko *heroikoa* izan zela esan daiteke.

**Zer-nolako harremana zuten txosnek Jose Angel Cuerdaren udal gobernuarekin?**

Txarra. Denbora pasatu behar izan zen Udalak onar zezan txosnek gune propioa izateko zilegitasun osoa zutela. Hasierako urteetan nahiko baldintza kaxkarretan lan egiten genuen, argia sorgailuetatik hartzen genuen, ez genuen urik... Urte haiek gogorrak izan ziren. Baina 85-86 urteetan txosnak Udalarekin negoziatzen hasi ziren, eta zenbait gauza (ura, argia...) lortu genituen.

**Hasierako urteez ari gara une oro, baina txosnek ibilbide luzea egin dute**







Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



[edorta sanz]

**dagoeneko. Aro desberdinak egon dira txosnen bizitzan, ezta?**

Bai, nik hiru etapatan banatuko nuke txosnen ibilbidea. Aroak guneekin lotuta daude. 1991 arte Floridan egon ginen, eta garai hartan txosnak egonkortzeaz gainera, Udalarekiko harremanak ere sendotuz joan ziren. 1992az geroztik, Luis Heinz kalera bidali gintuen Udalak, hor hasi zen bigarren etapa. Gu beldur ginen lekualdatzeak kalte egingo ote zigun, baina ez zen halakorik gertatu. Eta 2002tik aurrera, Unibertsitateen gunera aldatu ginen, eta beldur bera bagenuen ere, argi ikusi dugu txosnak erabat errotuta daudela eta areago, azken urteotan jende asko datorrela txosnetara, batik bat kontzertuengatik. Batez beste 3.000 eta 4.000 lagun inguru biltzen da kontzertuetan, harrigarria da. Aurrekontua ere nahiko handia da.

**Gogoan duzu krisi urterik? Noizbait txosnak desagertzear egon den urterik egon al da Gasteizen?**

Bai, krisi sakona egon zen 1997an. Miguel Angel Blancoren hilketaren ondorioz, Udalak txosnak kriminalizatu nahi zituen eta, debekatzear egon zen. Halere, guk jarri egin genituen, egoera erabat liskartsua bazen ere. Cuerda, azkenean, arriskatu egin zen, eta txosnen aldeko dekretu bat kaleratu zuen, alderdi artean polemika itzela sortuz. Krisi haren ostean Udalarekin negoziatzeari ekin genion, eta hitzarmenak sinatzen hasi ginen. 1998az geroztik hitzarmenak sinatzen ditugu Udalarekin, baita PPrekin ere. Eta ez da arazorik egon.

**Zein da, zure aburuz, Gasteizeko txosnen guneak duen erakargarritasun handiena edo alderik onena?**

Txosnen gunea batez ere gaueko espazio bat da. Eta alde horretatik gazteei zuzendutako gunea dela esan daiteke. Nire ustetan, gaur egun Gasteizko jaietan ez dago gaua modu alternatibo batean igarotzeko aukera ematen dizun bestelako lekurik. Gune zabala da, 21 txosna daude, kontzertuak, musika dago... Jende askorentzat ere aldarrikapen politikoarekin bat egiteko gune bat da txosnena. Azken batean, nahasketa bat da. Txosnek dinamika eta publiko propioa dute.

**Ideologia ezberdin eta aniztasunaren isla ere bada, izan ere kolektibo eta talde arras diferenteek paratzen dituzte euren txosnak.**

Bai, hala da, aniztasuna errealitate bat da. Hasieran zeuden batzuek jada ez dute jartzen, esaterako, IKA, Eguzki, Rugby taldea, Langabetuen Asanblada, CGT, Kakitzat, LAB, Ikasleen Sindikatua..., talde horiek egun ez dute txosnarik jartzen. Baina, aldiz, berriak sartu egin dira. Aurten hiru taldek txosna jarriko dute aurrenekoz: Aralarrek, Colombia-Euskadi taldeak eta Hola 19 Irratiak.

**Nola uler daiteke 25 urteren buruan txosnak inoiz baino indartsu eta osasuntsuago egotea? Non dago gakoa?**

Kolektiboek autogestiorako duten gaitasuna ezinbestekoa da txosnen bizitza luzea ulertu ahal izateko. 25 urte iraun duen gisa honetako ekimen bat ezin uler daiteke talde eta kolektiboek egiten duten lana aintzat hartzen ez bada. Azken finean, Gasteizen eta Euskal Herrian oro har dagoen herri mugimendu indartsu baten isla baino ez dira txosnak•

GASTEIZKO TXOSNAK. AROAK

**1981-1991 > Florida parkean egon ziren txosnak. Hasierako urratsak egin zituzten txosnek, apurka finkatuz.**

**1992-2001 > Luis Heinz kalean jarri ziren. Erabat egonkortuta zeuden ordurako. Udalarekin hitzarmenak egiten hasi ziren batzordekoak.**

**2002-2005 > Unibertsitate gunean paratu ziren txosnak. Bisitari kopurua ere handitu da.**







**• egonkortzea**

**"hazkunde handiena 83-84 urte bitartean izan zen. Baina, 1985erako txosnak nahiko finkatuta zeudela esan daiteke"**

**• jendetza**

**"bataz beste 3.000 eta 4.000 lagun inguru biltzen da kontzertuetan egun"**

**• udala**

**"1998az geroztik hitzarmenak sinatzen ditugu Udalarekin, baita PPrekin ere"**



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Araban zeha

## ABUZTUA



> Ibarra / Aramaio

Abuztuak 6. Esteban Deuna

> Amurrio

Andre Maria eta San Rokeren omenezko jaiak, abuztuaren 11tik 17ra bitartean.

>>11n. Iguarrakoaren jaitsiera (antzinako txori mitikoaren helduerak hasiera ematen die jaiei).

>>12an. Betagarriren kontzertua eta erakusketa mikologikoa, besteak beste.

>>14an. Txirrindularitza Sari nagusia, LII Aiara Zirkuitua, Daniel Albizuren omenez.

>>15ean, txistularien alardea.

>>16an. Karrozen desfilea, ganadu erakusketa, aurresku eta joten txapelketa.

>>17an. Iguarrako itzulerarekin batera, jaien amaiera.

> Araia, Aramaio, Urizaharra, Eltziego, Gebara eta Gopegi

Abuztuak 15. Andre Maria.

> Leza, Bilar eta Iruña Oka

Abuztuak 16. Roke Deuna.

> Laudio

Aiarako hiriburuko Sanrrokeak. Abuztuaren 15etik 28ra bitartean.

>>15ean. Txupinazoa.

>>16an. Erroke Deuna.

>>17an. San Roke Zaharra. Untxi tortilla txapelketa.

>>24an. Berakatza eta Umearen eguna.

>>25ean. Koadrilen eguna. Ken 7 talderen kontzertua.

>>27an. Odolosten eguna. Disko-gaua eta txirrindulari lasterketa.

>>28an. Kofradiek bere eguna ospatuko dute.

> Okondo, Durana / Arratzu-Ubarrundia, Lapuebla Labarka eta Urrunaga

Abuztuak 24. Bartolome Apostolua.

> Erribera Beitia, Durana, Goardia

Abuztuak 28. Agustin Deuna.

> Zoio

Abuztuak 30. Emeterio eta Zeledonio Eguna.

>>> eta gehiago > Jugo, Langraiz, Lagran, Bilanane, Bobeda, Gobiaran, Gordoa, Urabain, Arriola...

Eta zuk, nola ikusten duzu?
Egunsenti bat edo une erromantiko bat?

EGUZKIETAKO BETAURREKO GRADUATUAK

68€ tan

ETA HONDARTZAKO TOAILA OPARI

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria plaza
Olagibel, 33
(anbulategi aurrean)
GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# rreko JAIAK

## IRAILA

> Artziniega

Enzinako Andre Mariaren omenezko jaiak. Irailaren 2 eta 12 bitartean.

>>Erdi Aroko merkatua, irailaren 4an, igandea.
>>Irailaren 10ean, larunbata, Enzinako Birjinari bisita. Erromeria.

> Beranturi, Bernedo, Dulantzi, Eltziego, Lantziego, Samaniego, Gaubea, Estibaliz eta Kripan

Irailaren 9an, Andre Maria jaiak.

> Dulantzi

Irailaren 9an, Tripafinaren jaitsiera.

> Legutio

Irailaren 9tik 12ra.
>>Bertako pilota eskolako txapelketa / koblakariak / kale espektakulua.
>>Kontzertuak / bertako dj-ak / umeentzako jolasak eta parkea / txaranga.
>>Domekako meza eta dantza erakustaldia (Laguntza Taldearen eskutik, Legutiokoa ere bai) / mus txapelketa / mozorroen eguna / bolo txapelketa / tortilla txapelketa.

> Lantaron

Irailak 16. Kornelio eta Zipriano eguna.

> Elosu, Erribera Goitia eta Murgia

Irailak 29. Mikel Deuna.

>>> eta gehiago > Ilarduia, Olabarri, Korres, Urbina, Aramaio, Urturi, Zuia...

**www. jaiak.net**




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# AZKENA ROCK JAIALDIA 2005. GASTEIZ. irailak 2-3




[estitxu breñas]

## Rockaren maitaleek badute opari bat Gasteizen iraileko lehen asteburuan Gasteizko Azkena Rock Jaialdiaren aurtengo edizioari esker

Historia egin duten rock banda mitikoak eta egitasmo berriek bat egingo dute atzera ere Gasteizko Mendizabaleko gunean. 2002. urtean eman zitzaion hasiera asmo handirik gabe proposamen honi, jarraipenik izango ote zuen jakin barik ere, eta aurten kalitatez beteriko 4. edizioa antolatu da. Urterik urte duen arrakastaren ardatza, bai eta antolatzeari ekiteko arrazoia ere: rock & rollak publiko fidela eta propioa izateak eskaintza eta espazio amankomun bat sortzea eskatzen zuen, bai eta lortu ere.



### TALDEEN INGURUKO ERREFERENTZIAK

**DEEP PURPLE >** Rockaren historiako bandarik poteretsuenetakoa. Britaina Handian sortua, 60. hamarkadaren bukaeran. Munduko talde onenetakoen artean koka daiteke, lehengo eta belaunaldi berrietako jarraitzaileak atzetik dituela.

**QUEENS OF THE STONE AGE >** Eragin zabaleko taldea: 70. hamarkadako punka, 60. hamarkadako popa, The Kinks, Mötorhead, Led Zeppelin... Azken diskoa: 'Lullabies To Paralyze', orain arteko lanik anitzena.

**WILCO >** 'A Ghost is Born' azken diskoak taldeak izandako bilakaera garbi erakusten du: duela 10 urteko neo country-a atzean geratuta, pop kutsuko melodia kadentziagarriak giro esperimentalarekin uztartzen ditu; gitarra urratzaileak (Neil Young), gai barnerakoiak (John Lennon), kraut-rocka...

**MONSTER MAGNET >** Banda sikodelikoa, soinu indar handikoa, kutsu basatia. 90. hamarkadako banda garrantzitsua. Zuzeneko intentsoak.

GEU

www.geugasteiz.com | geu@geugasteiz.com | geugaste@grn.es

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariko taldeak egina, bideratua eta kudeatua | **erredakzioa:** Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | **tfnoa. eta faxa:** 945 22 21 53 | **e-mail:** geugaste@grn.es | www.geugasteiz.com | **zuzendaria:** estitxu breñas glz. de zarate | **aldizkariko batzordea:** josune velez de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estitxu breñas eta david alvez | **kazetariak:** josune velez de mendizabal, edurne begiristain, saioa fdz. de arangiz eta maite lekue | **azaleko argazkia:** argazkipress | **argazkiak:** edorta sanz | **bestelako irudiak-bilaketa:** estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | **testuen zuzenketa-orrazketa-osaketak:** estitxu breñas glz. de zarate | **itzulpenak:** edurne begiristain, estitxu breñas, aztiri | **maketa:** dalvez-komunikazioa / patirke sanz laguardia | **umorea:** iñigo sarasola | **kolaboratzaileak ale honetan:** jon arretxe, erlantz urtasun, josune marquinez, alfredo ibarra eta gamarrako ostalaritza eskola.. | **publizitatea eta banaketa:** edurne begiristain | **sustapen-harpidetza saila:** edurne begiristain, estitxu breñas glz. de zarate | **inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik. [aurreko alean 34. orrialdeko alavesen argazkia ez zen argazki press-ena, geu aldizkariarena baizik]



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa






**SOCIAL DISTORTION** > Mike Nessen pertsonalitate handiko ahotsak eta aura bereziak markatzen dute talde honen izaera. Kaliforniatik dator. Punk-rock taldea. Eragin zuzenak: Ramones, Sex Pistols eta The Clash. Azken lanaren izenburuak -'Sex, Love & Rock And Roll'- dena adierazten du.

**BAD RELIGION** > Eragin zuzenak: Sex Pistols, Dead Kennedys eta Black Flag. Kaliforniatik datorren banda ezaguna. Punk-rocka. Hard-core melodikoaren asmatzaileak. Disko berria: 'The Empire Strikes Back'. 80. hamarkadaren bukaerako punk-rockaren erreferentziazko taldea.

**DRIVE BY TRUCKERS** > 10 urteren buruan jaso du talde honek merezitako onarpena. Euren idealei fidelak, amerikar rockari eutsi diote hasieratik, western eta countryaren eraginez.

**GOV'T MULE** > 90. hamarkadaren erdialdean sortua. Rock indartsua, kalitatezkoa, sentimenduz beterikoa; jazz egiturak; soinu klasikoa, zuzena eta gordina batera. Berezitasuna: dotoreziaz, irmotasunez eta edertasunez beteriko 3 ordu inguruko kontzertuak.

**THE STEEPWATER BAND** > Chicagotik etorritako banda gaztea. Bihotzetik musika sortzeko, osotasuna dute abiapuntu. Hasiera batean bluesari so 90. hamarkadaren bukaeran sorturiko taldea. Ondoren ildoa gogortuko dute. Boogiea, bluesa eta R&Rik onena nahasirik. ZZ Top gustuko baduzu, ez galdu!

**BRANT BJORK & THE BROS** > Underground amerikarra.

**MASTERS OF REALITY** > Chris Goss du buru, stoner eszenako eredu mitikoa.

**BEASTS OF BOURBON** > Sidney, 1983. Rock & Rollaren bertsio basatia.

**TELEVISION** > New York. 70. hamarkadaren bukaerako talde aurreratua. Punk-jazza, abangoardiako rocka, finean post-punka.

**ELECTRIC SIX** > Detroit. Oso egungo banda. Rock, disko, new wave, garage, pop, metal eta punk-a batera. Apustu dantzagarria. Ustekabeko zuzenak. Letrak: makarrismoa, sexua, dantzaguneak...

**JULIETTE & THE LICKS** > Aktore famatua dugu Juliette Lewis, Rock & Rollaren maitale sutsua. Zuzenekoetan dena ematen du. Eraginak: Iggy Pop, Blondie, PJ Harvey, The Pretenders... Ezohiko energia. Euren 1. diskoa aurten kalean.

**TOWER OF LONDON** > Punk garratza. Liverpool. 1. LPa aurten grabatuko dute. Euren zuzenekoak bene-benetako batailak dira.

**ROSE HILL DRIVE** > Colorado-tik etorritako 3 gaztez osaturiko etorkizun handiko taldea. Ez galdu.

## bertakoak

### THE SOULBREAKER CO. > Gasteiz.

**2003 urte hasieran sortua. Estatu mailako talde onenetakoa. Zuzeneko indartsua.**

### HASH > Portugalete, 1999.

**Sustrai beltzeko musika, R&R, blues-rocka, soul, countrya, jazza eta rithm & blues. 2005ean argitaratu dute 1. lana. Jaialdiaren ezusteetako bat.**

### SPLIT 77 > Bilbon duela 8 urte sortua.

**Euskaraz eta ingelesez abesten dute. Ekarpen interesgarria euskal rockaren panoraman. 'Mentura' diskoak (2005) arrakasta handia izan du. Pop, rocka eta musika elektronikoaren nahasketa moderno eta gaurkoa. Azken urteotan sorturiko talde interesgarrienetakoa. David Bowie edota Depeche Mode-n soinu kutsua.**

TOKIA
**MENDIZABALA**

BONOAK
**Kontzertuak + kanpinga > 70 € (kopuru mugatua)**

SALMENTA PUNTUAK
**gasteizen: azkena gasteiz, frudisk, tipo, arriaga, araba kulturala**

**www.azkenarockfestival.com**

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Varanasiko istorioak

## 3.- Guru Dham Tenplua



[jon arretxe]

-Jende berriak ez du inolako begirunerik honelako tenplu zaharrekiko -kexatzen da aspaldiko maisu dudan Ganga jakintsua-. Duela 30 urte zati handi bat hondatu zuten etxe-multzoa egiteko. Orain, ostera, gasolindegia kokatu du multinazional batek hegoaldeko muturrean, eta zabaldu egin nahi dute haren eremua. Ez ote dira gauza ohartzeko zelako kaltea egiten duten honelako tenplu santu eta onuragarria suntsitzean?



Mindurik dago Ganga, mindurik eta ia guztiz bakarrik tenpluaren defentsan. Izan ere, lagun bakarra dauka zeregin latz horretan, tenpluaren barruti zabaleko txoko bat aprobetxatuz bizileku apala eraiki zuen atso txiki eta hauskor bat, ia zutik egoteko gauza ere ez dena. Gainerako guztiak kontra dauzka: inguruko etxe berrietako bizilagunak; epaitegietan elkarrekin borrokan dabiltzan Jay Narayan eraikitzailearen ondorengoak, tenpluaren egiazko jabeak; gasolindegiko enpresa multinazionaleko kideak...

Presio handia egiten ari dira denen artean Gangak amore eman eta tenplutik alde egin dezan behingoz, era guztietako amarruak asmatuz:

-Orain dela urte bi tenpluaren jabeetako batek eraikin nagusiko Radharen urrezko figura ostu eta eraman egin zuen hemendik. Duela gutxi, Krishnaren irudia ostu du. Edonola ere, neuri leporatu dizkidate lapurretak, gasolindegikoek erosita baitauzkate poliziak, epaileak eta gainerako agintari guztiak. Ni kartzelan sartzea izan zen hurrengo pausoa. Dena dela, berehala ohartu ziren ezin zutela ezer egin nire kontra bide horretatik.

Gangak uko egin omen zion jateari presondegian eman zituen hamabost egunetan. Areago, berarekin ehun metro koadroko gela konpartitzen zuten ehun presoak, haren prestutasuna sumaturik, inguratu eta, miresmenez, aholku eskatzen hasi zitzaizkion, etorkizunaz, hartu beharreko erabakiez, esku-ahurra irakurtzeko eskatuz...

Askatu egin zuten tenpluaren babesle fidela, besterik ezean, baina arerioak beste era batzuetara saiatu dira hari adorea kentzen. Lehenik pistoladuna bidali omen zuten tenplura, baina guruak irribarrez egin zion harrera, eta gaizkileak alde egin zuen, nahasturik.

Joan den astean, guruaren semeetako bat atxilotu dute, hilketa bat leporatuta. Jipoi galantak eman ei dizkiote, eta gero kartzelan sartu. Horrela bai eman diotela mina Gangari. Berarekin tenpluan bizi ziren seme-alabak hiriaren kanpoaldeko etxera bidaliak zituen, amagana, baina ezin izan du ezer egin denak babesteko. Seme nagusia askatzeko ahaleginetan dabil egunotan. Hamaika bisita egin ditu polizia-etxera, beste hamaika epaitegira. Zeukan diru gehiena xahutu du opariak eginez han eta hemen, eskupekoak emanez... Baina arerioa boteretsua da, eta opari handiagoak egin ahal izango ditu beti.

Ez naiz ausartzen Gangari esaten alferrikako ahaleginetan ari dela, hobe lukeela tenplutik alde egitea, bere eta familiaren onerako.

# ERREZETA

## Marrubi gazpatxoa bere sorbetearekin

[gamarrako ostalaritza eskola]

### Osagaiak:



Kl 1 marrubi birrindu
950 ml ur
50 ml mugurdi ozpin
800g azukre
Limoi azala
Kipulin laurdena
3 tomate heldu
12 marrubi ale eder
2 pepino zati zurituta
Piper berde zati bat
Ogi mamia
Oliba olioa, ozpina eta gatza
Ura
Ogia
Marrubi txikituak

### Prestakuntza

**Gazpatxoa**
Tourmix-aren ontzian, kipula, tomateak, marrubiak, ogi mamia, pepinoa eta piper berdea jarri, eta ur pixka bat gehitu ondoren dena birrindu xehe-xehe. Olio, gatz eta ozpinaz atondu eta norberak nahi bezalako sendotasunean utzi, horretarako ur edo ogi apurra gehituz. Txanotik pasa eta hozkailuan gorde ondo hoztuta zerbitzatzeko.

**Marrubi sorbetea**
Marrubiak ur hotzetan behar bezala garbitu ondoren, txiki-txiki birrindu, kilo bateko purea lortu arte. Bestetik, azukrea, 950 ml ur, mugurdi ozpina eta limoi azalaz, almibar bat egin. Pare bat minutuz irakiten utzi ondoren, marrubien purearekin ondo nahastu, eta hoztu. Ondo hoztu ondoren sorbeteran sartu eta behar bezalako sendotasun duenean izozkailuan gorde.
Ahal bezain mehe moztu ogi xerra batzuk, eta labean xigortu.

**Amaitzeko**
Cocktail kopatxo baten hondoan, aurrez txikitutako marrubi batzuk jarri eta gainetik sorbete goilarakada bat. Aldamenetik bota kontuz gazpatxoa, sorbetea ez mugitzen saiatuz. Azkenik, kipulinaz eta ogi xigortuaz apaindu.



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

HISTORIAZUTABEA

[alfredo ibarra]




# Aldaieta (I)



[erlantz urtasun]

Kaixo, irakurle. Nahiz eta oporrak izan, badakizu, alferkerietan aritzen gara eta, bon, atsedenaren hartzea ere behar-beharrezkoa dela ezin ukatu, zer arraio, baina egia da normalean jendearen arreta edo partehartzea murriztu egiten dela, Zeledon eta, bertoko jaietan ezik, jakina...

Bada, hala eta guziz ere zuen aldetik pare bat hausnarketa jaso dugu, eta, gaia ikusirik, Aldaieta izenekoaren azaltzeko aitzakia edo ematen diguzuela pentsatu dugu. Honatx, dena den, galderak, biak Gasteizkoak. Lehenik Iker Lopez de Aberasturirena, gogoeta sakona berea, hemen laburbildua: "Gasteiz hiria medio, erromatarrak eta gero Araba bisigodoa zen?". Bertzea, Maite Fernandez Ginearena, antzekoa, ea aurreko batean aipatu genuen Langraizko Illuna, erromatar aldiko Iruñako harresiak altxatu eta gero, baina Zaldiarango Zoraida musulmana jaio aurretik zer gertatu ote zen Araban, tartean mende luzeak baitira...

Esker mila biei, Iker eta Maiteri, nola bertzenaz! Ba, bai, Maite, erromatar aldiaren amaieratik musulmanen garaia heldu arte, mugarriren bat aipatzeagatik, ehundaka urte baitira, gure artean "mende ilunak" deitu ohi ditugu. Ez da, bai zera, euskal historialarion asmakizun hutsa, kanpotik iritsiriko kontzeptua baizik: "dark ages".

Eta horregatik jarri dugu "Aldaieta" izenburutzat, toki hori biziki garrantzitsua baitzaigu, egun eta hemen, balizko garai ilun haietan gertatu zena ezagut dezagun. Balizko ilunak, bai, zeren eta orain pairatzen ditugunak, zer erranik ez XVIII, XIX, XX. mendekoak hagitzez ilunagoak baitzaizkigu euskaldunoi. Behintzat aspaldiko haietan arabarrak euskaraz bizi zirelakotz, bon, arabar deitzerik baldin bazegoen, noski.

Aldaieta Gasteiztik hurbil da, kilometro guti, baina ez hiri ondoan, Urbina pasa, Legutio igaro, urtegi handi bezain eder haietan. Bertan erromatar aldia eta geroko aztarna ugari agertu zen XX. mendearen amaieran, hain zuzen ere Agustin Azkarate Garai-Olaun arkeologoak maisuki ikertu duena.

Hau, baina, ez da bi hitzetan ageri. Beraz, eta Kipling zenak errana, bertze une batean jorratuko dugu, hurrengo alean edo. Aurrerapenik? Ados. Iruñako Illuna eta Zaldiarango Zoraida, nolabait errateko, elkarrekin bizi ziren. Eta, haien etsai petrala, antza historialari espainiarzaleek nahi baino ahulagoa, bisigodoak omen ziren.

[? txoko honetan, erlantz urtasun historiagileari euskal herriaren historiaren inguruko galderak zuzenean egiteko aukera duzue. bidali hona zure galdera: geugaste@grn.es ]

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Heineken®




vitoria-gasteiz

# azkena rock festival 2005

**2005eko Irailaren 2a, Ostirala eta Irailaren 3a, larunbata Mendizabala Barrutia · Vitoria-Gasteiz**

Kanping-a de balde · Azoka · Bi Eskenatoki · Rock Karpa

**DEEP PURPLE QUEENS OF THE STONE AGE SOCIAL DISTORTION WILCO GOV'T MULE MONSTER MAGNET BEASTS OF BOURBON BAD RELIGION DRIVE-BY TRUCKERS HASH ELECTRIC SIX BRANT BJORK & THE BROS MASTERS OF REALITY JULIETTE & THE LICKS ROSE HILL DRIVE TOWERS OF LONDON SPLIT 77 ...**

Bonoak Salgai: Coruña (Noni Shop), Alacant-Elx (La Bateria), Bartzelona (Revolver, Discos Castelló, CD Drome), Baiona (Mattin Megadenda), Bilbo (Azkena Bilbao, Power Records), Burgos (Tipo), Castelló (Discos Medicinales), Donostia (Frudisk), Irun (Bloody Mary), Xixon (Librería Paradisso), León-Ponferrada (Tipo), Logroño (Discos Gutierrez), Madril (Escridiscos, Cd Drome, Record Runner), Malaga-Antequera (Sonar Discos), Oviedo (Turly Discos), Iruñea (Tipo), Santander (Discos Gong), Santiago (Discos Gong), Valentzia (Harmony), Vigo (Discos Elepé), Vitoria-Gasteiz (Cultural Alava, Azkena Gasteiz, Frudisk, Tipo, Arriaga Megadenda, Gong Lakua), Zaragoza (Tipo). www.servicaixa.com-en, Servicaixa sarean eta 902 332211 telefonoan ere sarrerak eskuragarri.

## ★★★★★★★★★★★★★★AURKEZPEN JAIA★★★★★★★★★★★★★★

**2005eko Irailaren 1a Osteguna · 20:00. Mendizabala Barrutia · Vitoria-Gasteiz**

**(BANDA SORPRESA) THE STEEPWATER BAND THE SOULBREAKER COMPANY ...**

INFORMAZIO GEHIAGO, BERRIAK, KONFIRMAZIO GEHIAGO: **www.azkenarockfestival.com**

LastTourInternational ROCK ★Heineken Coca-Cola burn Radio 3 mondo sonoro MTV España ROCK

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.HEINEKEN.ES

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## ABUZTUAREN 4an:

**22:00etan:**
KONTUZ LANEAN ARI GARA (testuak, irudiak, musika).
**23:00etan:**
LOS DEL GAS (Vitoria-Gasteiz-Orereta)
**01:00etan:**
BENITO KAMELAS (Valentzia)
**03:00etan:**
LA GRAN ORQUESTA hOXTION bRUTAL (Vitoria-Gasteiz)

## ABUZTUAREN 5 (AMNISTIAREN ALDEKO EGUNA)

**14:30etan:**
Presoen aldeko herri bazkaria Kanpillon.
**20:00etan:**
Enkartelada Virgen Blancan.
**20:30etan:**
Kalejira V.Blancatik Txosnetara
eta amaieran Presoen aldeko Brindisa
**23:00etan:**
KATALEPSIA (Vitoria-Gasteiz)
**01:00etan:**
BRIGADA KRIMINAL (Gipuzkoa)
**03:00etan:**
LENDAKARIS MUERTOS (Nafarroa)

## ABUZTUAREN 6 (GAZTETXEAREN ALDEKO EGUNA)

**21:00etan:**
Gaztetxearen aldeko Kalejira V.Blancatik.
**22:00etan:**
Antzerkia eta kale animazioa txosnetan
**23:00etan:**
KEIKE (Bizkaia)
**01:00etan:**
HABEAS CORPUS (Madrid)
**03:00etan:**
URGABE (Bizkaia)

## ABUZTUAREN 7 (EUSKARAREN OFIZIALTASUNAREN ALDEKO EGUNA)

**21:00etan:**
OIHULARI KLOWN
**23:00etan:**
ORTOPHONK (Vitoria-Gasteiz)
**01:00etan:**
ACIDO C (Gipuzkoa)
**03:00etan:**
THC (Nafarroa)

## ABUZTUAREN 8 (GERREN AURKAKO EGUNA)

**22:00etan:**
BAGDAD RAP filma botako da. (IRAKeko gerrari buruzko dokumentala)
**23:00etan :**
ARI, ARIANNA PUELLO (Katalunia)
**01.00etan:**
FISHBONE (EE.UU.)
**03:00etan:**
KUNG FUNK (Vitoria-Gasteiz)
+SEÑOR ROJO DJ lanetan (Madrid)

## ABUZTUAREN 9an:

**21:00etan**
LA TIRILI TEATRO, STOP AL PANICO antzeslanarekin
**22:00etan**
DJ PARRUTXO + RUBEN ROLANDO SANCHEZ + IÑAKI VIÑASPRE
**23:00etan:**
ONCE VARAS (Vitoria-Gasteiz)
**01:00etan:**
CHEB BALOWSKI (Katalunia)
03:00etan: LA KINKY BEAT (Katalunia)






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# abuztuak 4 osteguna

## ARRATSALDEAN

**18:00**

*Andre Maria Zuriaren plaza*

2005eko jaiei hasiera emango dien SUZIRIAren jaurtiketa eta ZELEDONEN JAITSIERA.

**18:30 - 22:30**

*San Prudentzio kalea, Dato kalea eta Amarika plaza*

Musika-emanaldia: BIZNIETOS DEL CELEDON FANFARREA (Antolatzaile: Peña Taurina Paco Ojeda).

**19:15**

*Udaletxea, Agirre Lehendakariaren kalea, Posta kalea eta Andre Maria Zuriaren plaza*

UDAL SEGIZIOA BEZPERETARA JOATEA, honako hauek lagunduta: UDAL MUSIKA BANDA, UDAL TXISTULARI BANDA, ERRALDOI, BURUHANDI, ZALDI ETA TXOTEN KONPARTSA eta gaita-jotzaile bandak

*San Migel eliza*

BEZPERAK, LORE ESKAINTZA eta HERRI-SALBEA. Andre Maria Zuriaren irudiaren aurrean. Erraldoi, Buruhandi, Zaldi eta Txoten Konpartsaren dantzaldia.

**19:00 - 09:30**

*Florida parkea*

Dantzaldia: RHODAS orkestra.

**20:30**

*Aihotz plaza*

DANTZA PLAZAN: Larrain Dantza eta Txulalai, Udal Folklore Akademiako gaita-jotzaileekin.

## GAUEAN

**22:00**

*Erdialdeko kaleak*

FAROLEN PROZESIOA: Andre Maria Zuriaren plaza, Prado kalea, Becerro de Bengoa kalea, San Antonio kalea, Florida kalea, Ramon Ortiz de Zarate kalea, Foru kalea, Alaba Jeneralaren kalea, Becerro de Bengoa kalea, Prado kalea eta Andre Maria Zuriaren plaza.

**23:00**

*Mendizabala*

*(feria-lekuaren ondoan)*

GASTEIZKO NAZIOARTEKO III. SU ARTIFIZIALEN ERAKUSTALDIA: VALECEA piroteknia (Araba), II. erakustaldiaren irabazlea.

*Principal antzokia*

"Queen: We will Rock You" by Queen &Ben Elton.

*Probintzia plaza*

TENOCHTITLAN FOLKLORE TALDEA (MEXIKO).

*Unibertsitateen eremua*

Kontzertua: **LOS DEL GAS** (Gasteiz).

**23:00 - 3:00**

*Erdialdea eta Alde Zaharra*

Musika kalean: KIRRINKA, INDARRA, BIOTZATARRAK eta SORGINETXE fanfarreak.

**23:30**

*Olagibel kalea*

ZORTZI ZEZENSUZKO eta musika-giroa: INDARRA, BIOTZATARRAK eta SORGINETXE fanfarreak.

**24:00**

*Foru plaza*

Kontzertua: **EL SUEÑO DE MORFEO.**

*Arka plaza*

Gau-jaia: KOXKOR orkestra.

*Aihotz plaza*

Kontzertua: **GARI**.

**00:30**

*Espainia plaza*

**STRADIVARIUS** orkestra.

**1:00**

*Unibertsitateen eremua*

Kontzertua: **BENITO KAMELAS.**



# abuztuak 5 ostirala

## GOIZEAN

**7:00**

*Erdi Aroko hirigunea eta Andre Maria Zuriaren plaza*

EGUNSENTIKO PROZESIOA eta ARROSARIOA.

**9:00 - 13:00**

Andre Maria Zuriari loreak eskaintzea.

**10:30**

*San Migel eliza* GOTZAIN-MEZA.

**10:30 - 14:00**

*Ogeta pilotalekua* PILOTA.

**11:00**

*Zezen-plaza* Bigantxak.

*Foru plaza* BOLA-JOKOA.

**11:30 - 15:00**

*Loma Jeneralaren plaza*

Gastronomia eta herri artisautza azoka.

## EGUERDIAN

**12:00**

*Espainia plazatik abiatuta*

Kalejira: Arabako Trikitixa Elkartea.

*Peñafloridako Kondearen plaza*

Haurrentzako tartea: ALONSO & HERMANAS RAMPÍN taldea, "El disparatado mundo de Alonso y las hermanas Rampín" (gaztelaniaz).

**12:00 - 13:00**

*S. Kristobal eta Adurtza auzoak*

Musika-giroa: CRESCENDO OPENDE banda.

*Santa Luzia eta Judimendi auzoak*

Musika-giroa: MEXIKOko TENOCHTITLAN folklore taldea (talde azteka).

**12:00 - 14:00**

*Aihotz plaza*

Trikitixa: ARABAKO TRIKITIXA ELKARTEA.

*Prado parkea*

ABENTURA LEKUA, jende ororentzat.

**12:30**

*Arka plaza*

Kontzertua: Ertzaintzaren Musika Banda.

*Luis Aranburu udal musika eskolako auditorioa*

Musika klasikoa: INNER DUO.

*Aihotz plaza*

Trikitixa: ARABAKO TRIKITIXA ELKARTEA.

**13:00**

*Foru plaza* HERRI KIROLAK

*Florida parkea*

GASTEIZKO UDAL MUSIKA BANDA.

**13:30**

*Aihotz plaza* Bertsolariak

*Peñafloridako Kondearen plaza*

Txotxongiloak: ASVINENEA taldea, "Maria eta aterkia" (euskaraz).

*Erdialdea*

Musika-giroa: CRESCENDO OPENDE banda (Holanda) eta MEXIKOko TENOCHTITLAN folklore taldea (talde azteka).

*Erdialdea*

Elkarreraginezko ikuskizuna. CLOSE ART taldeak "Saurus" lana eskainiko du.

## ARRATSALDEAN

**17:00** *Zezenetara joatea*

**17:00 - 20:30**

*Prado parkea*

ABENTURA LEKUA, jende ororentzat.

**18:00**

*Prado parkea*

Haurrentzako antzerkia: HORTZMUGA taldea, "Zirko iluna" (euskaraz).

*Probintzia plaza* Jotak: LOS PAMPLONICAS.

**18:30**

*Erdialdea eta Alde Zaharra* GESALTZA fanfarrea.

**19:00 - 20:00**

*Erdialdea* CRESCENDO OPENDE banda (Holanda) eta MEXIKOko TENOCHTITLAN folklore taldea (talde azteka).

**19:00 - 09:30**

*Florida parkea*

Dantzaldia: ALAZAN orkestra.

**19:00 eta 23:00**

*Principal antzokia*

"Queen: We will Rock You".

**19:30**

*Aihotz plaza* TXISTULARI KONTZERTUA. EUSKAL HERRIKO TXISTULARI ELKARTEA.

**20:00**

*Jardín de Falerina* EFECTO DOPPLER.

*Amarika plaza* CRESCENDO OPENDE banda

**20:30**

*Zezenetatik itzultzea*

Zezen-plazatik Espainia plazara, Florida eta Eduardo Dato kaleetan barrena (1. taldea).

Eta Angulema, Independentzia, Foru kaleetan eta Errege atean barrena (2. taldea).

*Aihotz plaza*

DANTZA PLAZAN: Larrain Dantza eta Txulalai, Udal Folklore Akademiako gaita-jotzaileekin.

## GAUEAN

**22:00**

*Ogeta pilotalekua*

ESKU PILOTA, Andre Maria Zuriaren saria (profesionalak).

**23:00**

*Mendizabala (feria-lekuaren ondoan)*

GASTEIZKO NAZIOARTEKO III. SU ARTIFIZIALEN ERAKUSTALDIA: Pirotecnia ZARAGOZANA (Zaragoza).

*Principal antzokia*

"Queen: We will Rock You" by Queen &Ben Elton.

*Probintzia plaza*

Barietate-errebista: "SENSACIONES".

*Unibertsitateen eremua*

Kontzertua: KATALEPSIA (Gasteiz).

**23:00 - 3:00**

*Erdialdea eta Alde Zaharra*

Musika kalean: EZBERDINAK, KIRRINKA, BIOTZATARRAK eta SORGINETXE fanfarreak.

**23:30**

*Olagibel kalea (Agirre Lehendakariaren kaletik Bake kalera)*

ZORTZI ZEZENSUZKO eta musika-giroa: EZBERDINAK, KIRRINKA, BIOTZARRAK eta SORGINETXE fanfarreak.

**24:00**

*Foru plaza*

Kontzertua: **SANTIAGO eta LUIS AUSERON.**

*Arka plaza*

Gau-jaia: TUKAN orkestra.

*Aihotz plaza*

Kontzertua: **XABI SAN SEBASTIAN + OREKA TX + DIDJERIDOO.**

*Erdialdea*

Elkarreraginezko ikuskizuna. CLOSE ART taldeak "Saurus" lana eskainiko du.

San Prudentzio kalea, Dato kalea, Posta plaza, plaza berria, A. Maria Zuriaren plaza, Loma Jeneralaren plaza.

**00:30**

*Espainia plaza*

LA CLAVE orkestra.

**1:00**

*Unibertsitateen eremua*

Kontzertua: **BRIGADA CRIMINAL.**

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# abuztuak 6 larunbata

## GOIZEAN

**10:30 - 14:00**
*Ogeta pilotalekua* PILOTA, (amateurrak).
**10:30 - 14:30**
*Erdi Aroko hirigunea* Erdi Aroko hiriguneko azoka.
**11:00**
*Zezen-plaza* Bigantxak.
*Espainia plaza* Haurrentzako II. Margo Lehiaketa.
*Foru plaza* ARABAKO BOLA-JOKOA,
**11:30 - 15:00**
*Loma Jeneralaren plaza*
Gastronomia eta herri artisautza azoka.

## EGUERDIAN

**12:00**
*Espainia plaza*
BANDA ETA TXARANGEN DEIA.
*Peñafloridako Kondearen plaza*
Haurrentzako tartea: P.A.I. taldea, "324 juegos" (gaztelaniaz). GARGANTUA.
**12:00 - 13:00**
*Abetxuko auzoa* CRESCENDO OPENDE banda
*Lakua eta Sansomendi*
Musika-giroa: Mexikoko TENOCHTITLAN folklore taldea (talde azteka).
**12:00 - 14:00**
*Prado parkea* ABENTURA LEKUA
**12:30**
*Arka plaza* ERTZAINTZAREN MUSIKA BANDA.
Luis Aranburu udal musika eskolako auditorioa
Musika klasikoa: "Soinu Banda" zinema kontzertua. Zinema mutua zuzeneko musikarekin: "Urre arrapalada" (The gold rush).
*Aihotz plaza*
Trikitixa: ARABAKO TRIKITIXA ELKARTEA.
**13:00**
*Foru plaza* HERRI KIROLAK.
*Florida parkea* UDAL MUSIKA BANDA.
**13:15**
*Espainia plaza* Musika (alboka, txistuak, etab).
**13:30**
*Probintzia plaza*
Gaztela-Leon erkidegoaren eguna. Zamorako Don Sancho etnografia elkartearen emanaldia.
*Aihotz plaza* Bertsolariak
*Peñafloridako Kondearen plaza*
Txotxongiloak: SOL Y TIERRA, "La princesa y el dragón" (gaztelaniaz).
**13:30 - 14:30**
*Erdialdea* CRESCENDO OPENDE banda (Holanda) eta MEXIKOko TENOCHTITLAN folklore taldea (talde azteka).
**14:00**
*Erdialdea* Kalejira gaita-jotzaile bandekin.

## ARRATSALDEAN

**17:00**
*Zezenetara joatea*
*Ogeta pilotalekua* ESKU PILOTA (profesionalak).
**17:00 - 20:30**
*Prado parkea* ABENTURA LEKUA
*Herrandarren kaleko kirol zelaiak*
VITORIA URBAN GAMES (12-25 urte).
Skateparke herrikoia eta graffiti lehiaketa.
**18:00**
*Zezen-plaza* ABONUKO 2. ZEZENKETA.
*Prado parkea*
Haurrentzako antzerkia: GORRINGO taldea, "Kalejirafa" (euskaraz).
*Probintzia plaza* Jotak: "LA RIBERA CANTA".
**18:00 - 20:00**
*Peñafloridako Kondearen plaza* GARGANTUA.
*Oinezkoen alderdia* Kalejira gaita-jotzaile bandekin
**18:30**
*Erdialdea eta Alde Zaharra* GESALTZA fanfarrea.
**19:00**
*Erdialdea* CRESCENDO OPENDE banda.
**19:00 – 22:00**
*Florida parkea* Dantzaldia: ALBOKA orkestra.
**19:00 eta 23:00**
*Principal antzokia*
"Queen: We will Rock You" by Queen &Ben Elton.
**19:30**
*Aihotz plaza*
Portugaleteko ELAI ALAI DANTZA TALDEA.
**19:30 -21:30**
*Herrandarren kaleko kirol zelaiak*
VITORIA URBAN GAMES (12-25 urte).
Bmx Freestyle, Breakdance, Dj eta Graffiti erakustaldiak.
Skateparke herrikoia eta graffiti lehiaketa.
**20:00**
*Jardin de Falerina (Montehermoso kulturunea)*
QUINTETO DE LA MUERTE.
*Amarika plaza*
Musika-emanaldia: CRESCENDO OPENDE banda (Holanda) eta MEXIKOko TENOCHTITLAN folklore taldea (mariachia).
**20:30**
*Zezenetatik itzultzea*
Zezen-plazatik Espainia plazara, Florida eta Eduardo Dato kaleetan barrena (1. taldea).
Eta Angulema, Independentzia, Foru kaleetan eta Errege atean barrena (2. taldea).
*Aihotz plaza*
DANTZA PLAZAN: Larrain Dantza eta Txulalai, Folklore Akademiako gaita-jotzaileekin.

## GAUEAN

**23:00**
*Mendizabala (feria-lekuaren ondoan)*
GASTEIZKO NAZIOARTEKO III. SU ARTIFIZIALEN ERAKUSTALDIA: Pirotecnia MACEDOS (Lixa, Portugal).
*Principal antzokia*
"Queen: We will Rock You" by Queen &Ben Elton.
*Probintzia plaza*
Klake ikuskizuna: TAP-OLE taldea.
*Unibertsitateen eremua* Kontzertua: KEIKE.
**23:00 - 3:00**
*Erdialdea eta Alde Zaharra*
Musika kalean: EZBERDINAK, KIRRINKA, BIOTZATARRAK eta SORGINETXE fanfarreak.
**23:30**
*Olagibel kalea*
ZORTZI ZEZENSUZKO eta musika-giroa.
**23:30 -1:30**
*Herrandarren kaleko kirol zelaiak*
VITORIA URBAN GAMES (12-25 urte).
**24:00**
*Foru plaza* Kontzertua: BETAGARRI.
*Aihotz plaza*
Kontzertua : **NIKO ETXART + DOMINIKA ETXART + ROBERT LARRANDABURU + HAPA-HAPA.**
**00:30**
*Espainia plaza*
GOLDEN orkestra.
*Arka plaza* Gau-jaia: JOSELU ANAIAK (Antolatzaile: Okerrak blusa taldea).
**1:00**
*Unibertsitateen eremua*
Kontzertua: **HABEAS CORPUS** (Madril).

# abuztuak 7 igandea

## GOIZEAN

**10:30**
*Andre Maria Zuriaren plaza*
"ZURE XI. ARGAZKIA, BEREZIAK".
**10:30 - 14:00**
*Ogeta pilotalekua* PILOTA, (amateurrak).
**11:00**
*Zezen-plaza* Bigantxak.
*San Migel eliza*
Blusa txikien ospakizuna, Zeledon Txiki eta Neska Txikirekin.
*Foru plaza* ARABAKO BOLA-JOKOA.
**11:30**
*Andre Maria Zuriaren irudiaren aurrean*
OHOREZKO AURRESKUA, Zeledon Txikik eta Neska Txikik eskainia.
**11:30 - 15:00**
*Loma Jeneralaren plaza*
Gastronomia eta herri artisautza azoka.
**11:30 -13:30**
*Herrandarren kaleko kirol zelaiak*
VITORIA URBAN GAMES (12-25 urte).

## EGUERDIAN

**12:00**
*Espainia plaza* ZELEDON TXIKIREN JAITSIERA.
**12:00 - 13:00**
*Gasteiz hiribidea eta Ariznabarra*
Musika-giroa: CRESCENDO OPENDE banda
*Arana eta Aranbizkarra*
Musika-giroa: Mexikoko TENOCHTITLAN folklore taldea (talde azteka).
**12:00 - 14:00**
*Prado parkea* ABENTURA LEKUA
**12:30**
*Erdialdea*
Elkarreraginezko ikuskizuna. ALC Producciones taldeak "Autos Locos" lana eskainiko du.
*Peñafloridako Kondearen plaza*
Haurrentzako tartea: RUSKUS PATRUSKUS taldea, "Cirkuskrus" (gaztelaniaz).
GARGANTUA.
*Luis Aranburu udal musika eskolako auditorioa*
Musika klasikoa: SERENATA DE ALTISIDORA.
*Arka plaza*
Kontzertua: AGURAINgo Musika Banda.
*Bastiturri kalea*
XVI. GANBA JANA: "Gasteiztarrak".
*Aihotz plaza*
Trikitixa: ARABAKO TRIKITIXA ELKARTEA.
**13:00**
*Foru plaza* HERRI KIROLAK.
*Florida parkea* GASTEIZKO UDAL MUSIKA BANDAren emanaldia.
**13:30**
*Aihotz plaza*
Bertsolariak: Fredi Paia, Iñaki Viñaspre, Xabier Silveira eta Iñaki Gurrutxaga.
Aurkezlea: Lierni Alguna.
*Peñafloridako Kondearen plaza*
Txotxongiloak: BIHAR taldea, "Sirenatxoa" (euskaraz).
**13:30 - 14:30**
*Erdialdea*
Musika-giroa: CRESCENDO OPENDE banda (Holanda) eta MEXIKOko TENOCHTITLAN folklore taldea (talde azteka).

## ARRATSALDEAN

**17:00**
*Zezenetara joatea*
Espainia plazatik, Eduardo Dato eta Florida kaleetan barrena, zezen-plazara.
*Ogeta pilotalekua*
ESKU PILOTA, Andre Maria Zuriaren saria (profesionalak).
**17:00 - 20:30**
*Prado parkea* ABENTURA LEKUA
*Herrandarren kaleko kirol zelaiak*
VITORIA URBAN GAMES (12-25 urte).
**17:30**
*Espainia plazatik, Prado parkera*
Blusa txikiak jaira joatea, Blusa eta Nesken Batzordeak lagunduta.
**18:00**
*Prado parkea*
Haurrentzako antzerkia: ROLABOLA taldea, "Casa Paco" (gaztelaniaz).
GARGANTUA.
*Zezen-plaza*
ABONUKO HIRUGARREN ZEZENKETA. LEONARDO HERNANDEZ, PABLO HERMOSO DE MENDOZA eta ALVARO MONTES zezen-hiltzaileentzat
*Probintzia plaza*
Jotak: NOBLEZA BATURRA.
**19:00 - 20:00**
*Erdialdea*
Musika-giroa: CRESCENDO OPENDE banda (Holanda) eta MEXIKOko TENOCHTITLAN folklore taldea (talde azteka).
**19:00 - 09:30**
*Florida parkea* Dantzaldia: BOHEMIA orkestra.
**19:00**
*Principal antzokia*
"Queen: We will Rock You" by Queen &Ben Elton.
**19:30**
*Aihotz plaza* TRIKITIXA txapelketa.
**20:00**
*Erdialdea*
Elkarreraginezko ikuskizuna. ALC Producciones taldeak "Autos Locos" lana eskainiko du.
*Jardin de Falerina (Montehermoso kulturunea)*
IÑAKI RODRIGUEZ JAZZ QUARTET.
*Amarika plaza*
Musika-emanaldia: CRESCENDO OPENDE banda.
*Prado parketik Espainia plazara*
Blusa txikien itzulera.
**20:30**
*Zezenetatik itzultzea*
Zezen-plazatik Espainia plazara, Florida eta Eduardo Dato kaleetan barrena (1. taldea).
Eta Angulema, Independentzia, Foru kaleetan eta Errege atean barrena (2. taldea).
*Aihotz plaza*
DANTZA PLAZAN: Larrain Dantza eta Txulalai, Udal Folklore Akademiako gaita-jotzaileekin.

## GAUEAN

**23:00**
*Mendizabala (feria-lekuaren ondoan)*
GASTEIZKO NAZIOARTEKO III. SU ARTIFIZIALEN ERAKUSTALDIA: Pirotecnia TURIS (Valentzia).
*Probintzia plaza*
Ekialdeko dantza ikuskizuna: MUNIQUE NEITH SABEL-DANTZAKO AKADEMIA.
*Unibertsitateen eremua*
Kontzertua: ORTOPHONK (Gasteiz).
**23:00 - 3:00**
*Erdialdea eta Alde Zaharra*
Musika kalean: BIOTZATARRAK eta SORGINETXE fanfarreak.
**23:30**
*Olagibel kalea*
ZORTZI ZEZENSUZKO eta musika-giroa: BIOTZATARRAK eta SORGINETXE fanfarreak.
**24:00**
*Foru plaza*
Kontzertua: **JARABE DE PALO.**
*Arka plaza* Gau-jaia: LISKER orkestra.
*Aihotz plaza* Kontzertua: **AFRIKA.**
**00:30**
*Espainia plaza* SABOR LATINO orkestra.
**1:00**
*Unibertsitateen eremua*
Kontzertua: **ACIDO C.**

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# abuztuak 8 astelehena

## GOIZEAN

**09:00**
*San Migel eliza* Blusa beteranoak: meza.
**10:00**
*Espainia plaza*
BANDA ETA TXARANGEN DEIA.
**10:30**
*Espainia plaza*
LEHIAKETA GASTRONOMIKOA (Antolatzaile: Bereziak blusa taldea).
**10:30 - 14:00**
*Ogeta pilotalekua* PILOTA, (amateurrak).
**11:00**
*Zezen-plaza* Bigantxak.
*Foru plaza* ARABAKO BOLA-JOKOA,
**11:30 - 15:00**
*Loma Jeneralaren plaza*
Gastronomia eta herri artisautza azoka.

## EGUERDIAN

**12:00**
BURUHANDI, ZALDI ETA TXOTEN Konpartsa
*Peñafloridako Kondearen plaza*
Haurrentzako tartea: ADUR ANTZERKIA, "Kuko, Truko eta Bolenwaider munduan zehar" (euskaraz). GARGANTUA.
**12:00 - 13:00**
*Zaramaga eta Pilar auzoak*
Musika-emanaldia: Mexikoko TENOCHTITLAN folklore taldea (talde azteka).
**12:00 - 14:00**
*San Martin auzoa* GESALTZA fanfarrea.
*Prado parkea*
ABENTURA LEKUA, jende ororentzat.
Bizikleta trena, eskalatzeko hormak, goming, zezen mekanikoa, puzgarriak, bide heziketako pista, jaurtimetroa, etab.
**12:30**
*Luis Aranburu udal musika eskolako auditorioa*
Musika klasikoa: CAMARA 4 (harpak, zeharkako txirulek eta fagotak osatutako laukotea)
*Aihotz plaza*
Trikitixa: GASTEIZKO FOLKLORE AKADEMIAKO TRIKITILARIAK.
*Arka plaza*
Kontzertua: ELTZIEGOKO SANTA CECILIA MUSIKA BANDA.
*Probintzia plaza*
BETERANOENTZAKO X. DANTZA LEHIAKETA: "EL MENEITO VETERANO", (Antolatzaile: "Nekazariak" blusa taldea).
**13:00**
*Foru plaza* HERRI KIROLAK
*Florida parkea*
GASTEIZKO UDAL MUSIKA BANDAren emanaldia. Blusa beteranoen eguneko errepertorio berezia.
**13:30**
*Aihotz plaza*
Bertsolariak: Iratxe Ibarra, Oihane Perea, Maialen Lujanbio eta Estitxu Arozena.
Aurkezlea: Irati Mendiguren.
*Peñafloridako Kondearen plaza*
Txotxongiloak: EL RETABLO DE LA VENTANA taldea, "Flit y Flat en el planeta perdido" (gaztelaniaz).
*Erdialdea*
Musika-emanaldia: Mexikoko TENOCHTITLAN folklore taldea (talde azteka).

## ARRATSALDEAN

**17:00**
*Zezenetara joatea*
Espainia plazatik, Eduardo Dato eta Florida kaleetan barrena, zezen-plazara.
**17:00 - 20:30**
*Prado parkea*
ABENTURA LEKUA, jende ororentzat.
Bizikleta trena, eskalatzeko hormak, goming, zezen mekanikoa, puzgarriak, bide heziketako pista, jaurtimetroa, etab.
**18:00**
*Prado parkea*
Haurrentzako antzerkia: T.E.N.-PINPILINPAUXA taldea, "Zakarrontzietako abentura" (euskaraz).
*Probintzia plaza*
Jotak: VOCES DEL EBRO.
*Zezen-plaza*
ABONUKO LAUGARREN ZEZENKETA. ALDEAQUEMADA abeletxeko zezenak PEPIN LIRIA, EUGENIA DE MORA eta SERAFIN MARIN zezen-hiltzaileentzat
**18:00 - 20:00**
*Peñafloridako Kondearen plaza*
GARGANTUA.
**19:00 - 20:00**
*Amarika plaza - Erdialdea*
Musika-emanaldia: Mexikoko TENOCHTITLAN folklore taldea (mariachia).
**19:00 - 09:30**
*Florida parkea*
Dantzaldia: IRATXO orkestra.
**19:30**
*Aihotz plaza*
KONTZERTUA: ELTZIEGOKO GAITA-JOTZAILEAK & FRIENDS.
**20:00 eta 23:00**
*Principal antzokia*
"Gorda (FAT PIG)", Neil Labuterena.
**20:00**
*Jardin de Falerina (Montehermoso kulturunea)*
Kontzertua: JAVIER HERAS kantautorea.
**20:30**
*Zezenetatik itzultzea*
Zezen-plazatik Espainia plazara, Florida eta Eduardo Dato kaleetan barrena (1. taldea).
Eta Angulema, Independentzia, Foru kaleetan eta Errege atean barrena (2. taldea).
*Aihotz plaza*
DANTZA PLAZAN: Larrain Dantza eta Txulalai, Udal Folklore Akademiako gaita-jotzaileekin.

## GAUEAN

**22:00**
*Ogeta pilotalekua*
ESKU PILOTA, Andre Maria Zuriaren saria (profesionalak).
**23:00**
*Mendizabala (feria-lekuaren ondoan)*
GASTEIZKO NAZIOARTEKO III. SU ARTIFIZIALEN ERAKUSTALDIA: Pirotecnia HERMANOS CABALLER (Castello).
*Principal antzokia*
"Gorda (FAT PIG)" Neil Labuterena.
*Probintzia plaza*
Argentinar tango ikuskizuna: LUNTARDO + LOS ANGELES PARAGUAYOS.
*Unibertsitateen eremua*
Kontzertua: ARI.
**23:00 - 3:00**
*Erdialdea eta Alde Zaharra*
Musika kalean: EZBERDINAK, BIOTZATARRAK eta SORGINETXE fanfarreak.
**23:30**
*Olagibel kalea (Agirre Lehendakariaren kaletik Bake kalera)*
ZORTZI ZEZENSUZKO eta musika-giroa: EZBERDINAK, BIOTZATARRAK eta SORGINETXE fanfarreak.
**24:00**
*Foru plaza* Kontzertua: **TAMARA**.
*Arka plaza* Gau-jaia: KRESALA orkestra.
*Aihotz plaza* Kontzertua: **SKUNK**.
**00:30**
*Espainia plaza* VARADERO orkestra.
**1:00**
*Unibertsitateen eremua*
Kontzertua: **FISHBONE**.

# abuztuak 9 asteartea

## GOIZEAN

**10:30 - 14:00**
*Ogeta pilotalekua*
PILOTA, (amateurrak).
**11:00**
*Zezen-plaza* Bigantxak.
*Foru plaza* ARABAKO BOLA-JOKOA,

## EGUERDIAN

**12:00**
*Espainia plaza*
BANDA ETA TXARANGEN DEIA.
*Peñafloridako Kondearen plaza*
Haurrentzako tartea: LA BANDA taldea: "La banda" (euskaraz). GARGANTUA.
**12:00 - 14:00**
*Txagorritxu auzoa*
GESALTZA fanfarrea.
*Zaramaga eta Pilar auzoak*
ERRIOXAKO txaranga.
*Prado parkea*
ABENTURA LEKUA.
**12:30**
*Luis Aranburu udal musika eskolako auditorioa*
Musika klasikoa: MENDELSSOHN HARI-ZORTZIKOTEA.
*Aihotz plaza*
TRIKITIXA ELKARTEA.
*Arka plaza*
CHESTEKO "LA LIRA" GAZTE MUSIKA BANDA.
**13:00**
*Foru plaza*
HERRI KIROLAK,
*Florida parkea*
UDAL MUSIKA BANDA.
**13:30**
*Aihotz plaza*
Bertsolariak.
*Peñafloridako Kondearen plaza*
Txotxongiloak: BEHI BI´S taldea, "Ni arratoi" (euskaraz).

## ARRATSALDEAN

**17:00**
*Zezenetara joatea*
**17:00 - 20:30**
*Prado parkea*
ABENTURA LEKUA.
**18:00**
*Prado parkea*
Haurrentzako antzerkia: KAMANTE taldea, (gazt.).
*Zezen-plaza*
ABONUKO BOSGARREN ZEZENKETA.
*Probintzia plaza*
Jotak: VOCES NAVARRAS.
**18:00 - 20:00**
*Peñafloridako Kondearen plaza*
GARGANTUA.
**19:00 h**
*Foru plaza*
MUSKUILU PATEaren dastatze herrikoa.
*Posta plaza*
ERRIOXAKO txaranga.
**19:00 - 09:30**
*Florida parkea*
Dantzaldia: EKLIPSE orkestra.
**19:30**
*Aihotz plaza*
DANTZA PLAZAN,
**20:00**
*Principal antzokia*
"Gorda (FAT PIG)"
Neil Labuterena.
*Jardin de Falerina*
NOMAD TALDEA.
**20:30**
*Zezenetatik itzultzea*
*Aihotz plaza*
DANTZA PLAZAN

## GAUEAN

**22:00**
*Ogeta pilotalekua*
ESKU PILOTA, (profesionalak).
**23:00**
*Mendizabala (feria-lekuaren ondoan)*
III. SU ARTIFIZIALEN ERAKUSTALDIA: IP INNOVATE (Stuttgart, Alemania).
*Probintzia plaza*
JULIO TEJELA antzerki konpainia: "MAYORDOMO PARA TODO".
**23:00 - 3:00**
*Espainia plaza*
EIVISSA orkestra.
**23:30**
BIOTZATARRAK eta SORGINETXE fanfarreak.
**1:00**
*Andre Maria Zuriaren plaza*
JAI BUKAERA: ZELEDON AGURTU ETA IGOTZEA. AZKEN TRAKA, VALECEA piroteknaren eskutik.



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa